

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ospitale Guneko Psikiatria Zerbitzuko hiru langilek saria jaso dute psikosiari buruzko ikerketa batengatik

Gaixotasunaren hasierako zenbait aldaketa neurologikok etorkizunean hondatze-maila handiagoa erakusten dute, ikerketaren arabera

Lunes, 27 de agosto de 2012

Ekainaren 21etik 23ra bitarte Santanderren egindako [`Buruko gaixotasunen fase goiztiarrei buruzko 10. nazioarteko bilkura´-k](#) poster onenaren Gazte Zientifikoek saria eman die honako hauei: ikerketako neuropsikologo Ana M^a Sánchez Torres-i eta Nafarroako Ospitale Guneko Psikiatra Zerbitzuko Lucía Moreno Izco, Elena García de Jalón Aramayo, Marisol Campos Burgi eta María Zandio Zorrilla psikiatrei.



Ezkerretik eskuinera: Manuel J. Cuesta, Lucía Moreno, Ana Sánchez Torres eta Víctor Peralta, Osasun Mentaleko zuzendaria ere.

Saritutako lanaren titulua "Miaketa neuromotorrak balio dezake PEP gaixoen funtzionamendu psikosoziari eragiteko?" eta lan hori Manuel J. Cuesta Zorita eta Víctor Peralta Martín (NOGko Psikosiaren Ikerketa Unitatea) medikuek zuzendutako ikerketa-proiektu zabalago baten barruan dago.

Psikiatriako hainbat kongresu nazional eta nazioartekoetan azken urte honetan ikerketa-talde horrek jasotzen duen bigarren saria da gainera, eta azken zazpi urteotako laugarrena.

Psikosisia psikiatriako gaixotasun larrienen artean dago eta bertan sartzen dira: desoreka eskizofrenikoak, nahasmendu bipolarrak eta beste psikosi batzuk. Haren jatorria eztabaidatzen da oraindik, baina ebidentzia zientifiko handiak daude diotenak, etorkizuneko gaixoaren sorreraren lehen hilabeteetatik neurogarapeneko prozesuetan nahasten den elkarrekintza genetiko eta ingurumeneko batengatik garatzen direla. Haren adierazpen klinikoak gaztea denean azaltzen hasten dira edo heldutasunaren hasieran honako era honetan: eldarnio eta haluzinazio forman, komunikatzeko gaitasuna galduz eta gog-aldarte biziki aldatuz. Gaixo batzuen kasuan, psikosiarekin batera, erikortasun eta kronikotasun handia agertzen dira, familia-zama handia sortuz ager daitekeen hondatze psikosoziala dela eta.

Aurreko ikerketetan ikusi zen gaixoek seinale neurologiko arinak aurkez ditzaketela gaixotasunaren hasieran, esaterako: aldaketak motrizitatearen koordinazio eta integrazioan, baina baita mugimendu ez ohikoak ere, dardara eta zurruntasuna; azken seinale horiek beste prozesu mediko batzuen bereizgarri dira, Parkinson gaitzarena adibidez.

77 gaixoren lagina

Orain arte ikertu ez zena zen psikosia izaten hasten diren gaixoetan dauden aldaketa neurologiko horiek uzten duten iragartzen, episodio psikotikoak dituzten gaixoek beren funtzionamendu psikosozialean jasan dezaketen hondatze-maila; huraxe izan da, hain zuzen, ikerketa honen abiapuntua.

77 gaixoren 77 lagin jaso zen psikosiaren lehen episodioarekin, eta NOG+-ko B Psikiatria atalean sartu zirenak; 6 hilabetez berriz ebaluatu ziren bertan. Gaixo horien eta beren familiarren parte-hartzeari esker, haiei guztiei ebaluazio kliniko, neurologiko eta kognitibo zabala egin zitzaion.

Aurkikuntza nagusia izan zen hasierako miaketa neurologikoaren aldaketak jarraipenean gaixoek garatu behar zuten funtzionamendu psikosoziala iragartzen zutela (autozainketan eta funtzionamendu familiarrean, laneko funtzionamenduan eta funtzionamendu sozialean). Hau da, gaixo batek aldaketa neurologiko argiak aurkezten baditu, bilakaera txarra izango du, hondatze-maila handiagoarekin.

Egileen arabera, ikerketa horren emaitzek "psikosia duten pazienteak identifikatzeko aurrerapen bat erakusten dute, bere gaixotasunaren hasieratik arrisku handiago bat dutenak hondatze psikosozialarekin eboluzionatzeko". Era horretan, gaixotasunaren hasieratik banako plan terapeutiko biziago bat diseina daiteke, eta hondatze batekin eboluzionatzeko arrisku handiagoko pazienteei etorkizuneko errekupeazio psikosoziala erraztuko diena", gaineratu dute.